

20/01/2010

Herri kirolean aritzeko aukera asteburuan Igartubeiti baserrian

Larunbata honetan ere, eta hilabete honetako azken aurrekoa izanda, familien-tzako tailer didaktiko bat egingo da arratsaldean Ezkio-Itsasoko Igartubeiti Baserri Museoan.

Ez da lehenengo aldia tailer hau aurrera eramaten dela eta gustora hartu izan dute orain arte gaztetxoek, beraz herri kirolak hobeto ezagutzeko aukera zabalduko dute oraingoan interpretazio zentruan. Herri kirol hauen jatorria ezagutu, kirol noiz eta nola bihurtu ziren jakin eta nola jolasten den ikasi ondoren hauek praktikatzeko aukera izaten dute gaztetxoek.

Aurrekoan ere adarra nola jotzen den ikasteko aukera zabaldu zieten Igartubeitikoek. Tailer hau 16:30etan hasiko da eta bi orduko iraupena izango du. Ospatzen diren tailer didaktiko guztiak bezala hau ere doakoa izango da eta bai herriko bai inguruko ume eta gaztetxo guztiek parte hartzeko aukera dute.

Hilabetero ospatzen den azken tailerra berezia izaten da beti. Hilak 30ean artisau kandelak egiteko aukera izango da.